2004-V-21
Número **137.** zenbakia

ELA

# astekaria

## EDITORIALA

### Iñaki Uriaren bahiketa

**Joan den urteko otsailean zur eta lur utzi gintuen *Egunkaria*ren eta hainbat herritarren aurkako operazioa ez da amaitu. Batetik, euskarazko egunkari bakarra behin betiko ixtea esan nahi zuen "badaezpadako erabaki" haren ondotik epaiketarik izan ez delako (zergatik ote?).**

**Bestetik, orduan atxilotu zuten Iñaki Uria kontseilari-ordezkaria oraindik espetxean dagoelako. Duela gutxi epaileak fidantza jartzeko eman dion aukera adar jotzea eta taxuzko zuzenbide-estatu baten baitan iraintzat hartuko litzateke: Kalera irten ahal izateko Uriari 600.000 euro, garai bateko 100 milioi pezeta alegia, eskatzen dizkio, baina ez ohikoa den moduan, berme bidez, dirutan baizik. Baten batek aipatu zuen hau kartzelan jarraituko duela esateko beste modu bat dela.**

**Beraz, Espainiako gobernuan aldi berri bat hasi den arren, Zapateroren garai alaitsu eta kanpoeder honetan, gauzak ez dira asko aldatu: Oraindik Iñaki Uriaren aurka froga sendo bat aurkitu ez duten arren, giltzapean daukate; delituaren frogarik aurkitzea, gainera, ezinezkoa da, egin zuen gauza bakarra egunkari bat sortzeko lanetan jo eta ke ibiltzea izan baitzen.**

**ELAk bere garaian esan zuen bezala, Auzitegi Nazionalaren erabakia adierazpen askatasunaren, informazio-eskubidearen eta euskal kulturaren aurkako erasoa zen. Baina susmagarria da hain denbora luzez estatuak errurik ez duen gizon hau atxilo, bahituta eduki nahi izatea.**

**Zer egin dezakegu? Mobilizazioetan parte hartu eta gure haserrea adierazi; horixe izan da ostegun honetan Donostian hainbat sindikatuk egin dutena. Eta beste zerbait ere bai, lan positiboa: duela gutxi Iñakik espetxetik idatzitako gutun batean zioen bezala, langileok eta sindikatuok ere euskalgintzari arnas eman diezaiokegu. Badakigu ez garela Iñaki ordezkatzeko gauza izango (euskararen aldeko lan sutsua egiten baitzuen), baina saiatuko gara.**




## Sebas Andreu, ELAren negoziazio kolektiboko arduradunak, egoera aztertzen du

# GAUZAK PURI-PURIAN DAUDE



**–Aurtengo hitzarmenen negoziazioa fase gorenean sartzen ari dela esan daiteke.**

–Zertxobait berandu hasi ginen, LABekin eta ESKrekin negoziaziorako ituna burutzeak bere denbora eskatu zuelako, baina harrez gero lana ondo egin da, eta une honetan negoziazioa gori-gori daukagu.

**–Nola daude batzuen nahiz besteen jarrerak?**

–Aldeen jarrerak oso finkatuta ikusten ditut. Sindikatuok hiru errebindikazio arlo nagusi ditugu jarriak negoziazio mahaien gainean: soldatak, lanorduen murrizketa eta enplegu kondizioak. Nagusien erantzuna oso itxia izan da: soldatetan ezer gutxi, eta beste bi arlotan, ezer ez. Aipatzekoa da enplegu baldintzei buruz Adegiren ordezkari batek negoziazio mahaian botatakoa: "hori PSOEren gobernuak konpondu beharko du, guk ez dugu hortaz ezer hitz hartuko".

**–Zertan da sektore-negoziazioa?**

–Gipuzkoako Eraikuntzako grebak bi aste bete ditu jarraipen osoarekin; jendea indartsu eta animatuta ikusten da, gainera. Gipuzkoako grafikagintzan datorren asterako bi eguneko greba dago deituta, eta Bizkaian ere gatazka prestatzen ari gara. Metalgintzako lau lurraldetako komenioetan ere mobilizazioarako giroa lantzen ari da. Osakidetzan hasi dira mobiliza-

→

# HUELGA EN ARTES GRÁFICAS DE GIPUZKOA

## El 25 y 26 de mayo

Los sindicatos ELA y LAB han convocado una huelga para el martes y miércoles de esta semana en el sector de Artes Gráficas de Gipuzkoa, ante el bloqueo de las negociaciones del convenio sectorial. El convenio afecta a 2.000 trabajadores y trabajadoras en este territorio.

En su plataforma, los sindicatos reclaman para este año un incremento salarial del 4,2%, 15 horas de reducción de jornada y elevar la categoría mínima a la escala 1,34.

Arte grafikoak
**GREBAN**

*maiatzak 25 eta 26*

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

LAB
Langile abertzaleen batzordeak

**28 de mayo, 11 horas, concentraciones ante los parlamento vasco y navarro POR EL DERECHO A LA VIVIENDA**

zioak; hainbat udaletxetan ere bai. Arabako Egur sektoreko hitzarmenean ere erantzuna prestatzen ari gara. Bizkaiko gasolindegietan itxurazko hitzarmena lortu da, eta greba deialdiari esker Campsak botatako hordagoa irabazi ahal izan dugu.

**–Nafarroako Zurgintza arlorako lau urtetarako hitzarmena sinatu berria da.**

–UGT eta CCOO sindikatuek sinatu dute, gure iritziaren aurka. ELA eta LABentzat patronalaren eskaintza ez zen inondik inora onargarria, ez soldaten aldetik, ez eta lanorduen aldetik ere. Gure ustez sinadura saldukeria izan da hain baldintza kaskarrekin lau urtetarako komenioa itxi eta ugazabei lasaitasunaren bermea eskaini zaielako. Pena izan da sinatu duten sindikatuek ELA eta LABi ordezkari baten aldea besterik ez digutelako ateratzen, baina horrela dira gauzak. Guk, nolanahi, lan hitzarmena ez bada ere, bilatuko ditugu beste gai batzuk sektoreko enpresetan errebindikazio dinamika lantzeko.

**–Enpresa mailako negoziazioak ere aurrera doaz...**

–Hor ari gara lortzen emaitzarik onenak, ezbairik gabe, lurralde guztietan. Nik bereziki Arabako metal arloko enpresetan gertatzen ari dena aipatu nahi dut, hainbat akordio on lortzen ari baikara. Macauto, Industrias Dimo edo Ansan, esate baterako, soldata igoera mardulak lortu dira eta diskriminazioaren eta prekariotasunaren aurkako neurri zehatzak ere bai. Uste dut SEAren jarrera bortitz eta erasokorrari (ultraaktibitatea kentzea planteatzen ari dira) enpresetan erantzun egoki eta eraginkorrak ematen ari gatzaizkiola.



**–Arabakoa da Caballito ere...**

–Borroka eredugarria da zazpi hilabetez dagoenekoz langile hauek daramatena. Eta gatazkaren zioa zein den ikusita, hots, langileen kaleratzea enpresaren erabaki hutsaren esku ez dadila geratu, zuzendaritzak nahi duen bezala, uste dut merezi dutela ez bakarrik langileon elkartasuna, baizik eta euskal erakundeen aldetik jaso ez duten babesa.

**–Azpikontratazioaren inguruko gatazkak luze doaz.**

–Bai. Artxandako tuneletan akordio on bat lortu zen, hobea nahi bazen ere; hor gutxieneko zerbitzu gehiegizkoen mehatxuak langileen kontra jokatu zuen eta hitzarmena sinatzera behartu. Bizkaiko Ur Partzuergoko eta Basauriko eraikin publikotako garbiketarako azpikontraten gatazkek hor segitzen dute, eta langileak, gora behera guztien gainetik, indartsu ikusten ditut.

**–Azpikontrata hauen gatazka politikoa dela irakurri dugu behin baino gehiagotan.**

–Ezbairik gabe, baina ez langileek horrela erabaki dutelako, baizik eta alderdi politiko batzuk, EAJ buru dutela, gatazkari irtenbidea bilatu beharrean negoziazioaren aurkako printzipiozko jarrera politikoa hitz hartu dutelako. Zerbitzu publiko onak eskaini nahi dituzte (eta eskaintzen ari dira) lan baldintza kaskarretan dauden langileen eskutik, eta hori onartezina iruditzen zaigu; sindikatuak ahal duen guztia egingo du langile hauen borroka sostengatzeko. Jakina, agintarien gaitasun falta eta harrokeria itsu honen ondorioak grebalariek eta herritarrek pairatu behar dituzte. Eta badirudi borrokak luze joko duela, administrazioek, negoziatu ordez, errepresioaren, auzitegien eta espedienteen bidea aukeratu baitute.

**–Azkenik, azken egunotan Zapateroren gobernuaren eskutik etor daitekeen lan erreforma berri baten iragarpenak entzuten hasi gara.**

–Gauzak zehatzago ezagututakoan eman beharko da iritzia, baina, egia esan, Fidalgo nahiz Cuevasek azaldutako harrera ona seinale txartzat hartu behar da.

*La negociación, tanto sectorial como de empresa, entra en una fase álgida.*

*Hemos conseguido buenos resultados en muchas empresas y estamos planteando la lucha en otras muchas.*

*Algunos partidos, con el PNV al frente, están imponiendo el principio de que los servicios públicos se den a costa del personal de las contratas.*

IRITZIA



# "No nos van a imponer el ámbito de negociación"

La patronal pretende condicionar a la baja, desde el ámbito sectorial, los contenidos de la negociación en todas las empresas. Para ELA está claro quién no quiere negociar. Son varias las empresas en Gipuzkoa que se están dirigiendo a los Comités manifestando su no disposición a hablar de nada hasta que no conozcan las referencias del sector.

Es claro, para ELA, que la patronal obstaculiza la negociación porque su pretensión no es otra que la de condicionar todos los convenios y pactos a la baja.

En la mesa celebrada el día 20 de Mayo ELA y LAB hemos realizado movimientos en nuestra plataforma: Hemos rebajado nuestras pretensiones en salarios y jornada. Adegi sigue sin presentar nada mínimamente serio.

ELA defiende una negociación colectiva con contenidos. Una negociación colectiva que aborde, en serio, la discusión de los grandes privilegios que ha consolidado la patronal en los últimos diez años de crecimiento económico.

Este objetivo, salvo que alguien pretenda engañar, sólo puede plantearse con rigor desde una posición de relación de fuerzas. No es cierto, en modo alguno, que existan ámbitos de negociación que estén predestinados a "garantizar la solidaridad entre los trabajadores". La única "solidaridad" –si así se le puede llamar– que se ha producido estos últimos años se ha dado entre las rentas del trabajo y las empresariales. Todos los datos estadísticos que manejamos así lo corroboran.

El debate, al menos para ELA, no es si hay ámbitos prioritarios y/o preferentes por "gracia divina" para la acción sindical. El debate que ELA propone es que, existiendo los ámbitos que existen, si queremos incidir eficazmente a favor de las personas discriminadas e instaladas en la precariedad, sólo es posible hacerlo desde posiciones sindicales reivindicativas y de lucha, y sólo es posible en aquellos ámbitos en que contemos con fuerza. Todo lo demás es pura retórica. Todo lo demás colabora en que la patronal continúe aumentando sus posiciones de privilegio. No tenemos vocación de ser gestores del sistema que padecemos. Esos cambios que queremos sólo pueden plantearse en los ámbitos donde contemos con la relación de fuerzas, porque la patronal no nos va a regalar nada.

**JOSÉ LUIS VIDAL, miembro de la permanente del Metal de Gipuzkoa.**

Egunean Al Día

# ELA considera insuficiente el aumento del SMI anunciado por el gobierno español

# LA TRAMPA DEL SALARIO MÍNIMO



**ELA considera insuficiente la subida del Salario Mínimo Interprofesional (SMI) que ha anunciado el ministro español de Trabajo y Asuntos Sociales, Jesús Caldera. En la línea de las grandes promesas que viene lanzando el equipo de Rodríguez Zapatero, ha declarado que su gobierno tiene intención de elevar el Salario Mínimo Interprofesional (SMI), de los 460,50 euros actuales hasta los 490 euros, un 6,6% de incremento total.**

Este incremento supone una mejoría respecto a la situación actual y compensa la pérdida de poder adquisitivo que el SMI ha experimentado desde 1997". "Sin embargo –advierte el gabinete técnico del sindicato–, el SMI ha venido perdiendo poder adquisitivo desde 1983", o sea, también durante las tres legislaturas de gobierno del PSOE, "siendo ésta pérdida acumulada de 20,7 puntos". En consecuencia, "la subida anunciada compensa sólo una pequeña parte de la pérdida ha sufrido este salario desde 1983".

A pesar del anunciado aumento, el SMI queda lejos de cumplir con las recomendaciones de la Carta Social Europea, que establece que debería situarse en el 50% de la renta media de cada país.

### TRAMPAS

Por otra parte, y a excepción de las prestaciones por desempleo (sin precisar si se refiere a las contributivas o a las asistenciales), el ejecutivo español deja de vincular al salario mínimo prestaciones que hasta la fecha tenían como referencia al mismo; de esta forma (y con la excepción de las prestaciones por desempleo), el aumento del SMI no supondrá un incremento en las prestaciones que hasta la fecha venían vinculadas al salario mínimo.

Junto a la noticia de aumento del SMI, se ha anunciado un paquete de medidas que han pasado bastante inadvertidas, y que no dejan de tener su importancia.

Una de ellas se refiere a las pensiones. En concreto, el gabinete técnico de ELA dice que el PSOE "se plantea ampliar el periodo de cálculo de las pensiones, lo que supone una disminución de la cuantía a percibir por las nuevas pensiones".

En torno a este anuncio del ministro de Trabajo, tampoco se ha hablado mucho de las medidas planteadas sobre la estructuración de la negociación colectiva, que puede tener como uno de sus objetivos principales un objetivo perseguido desde hace tiempo por CC OO y UGT, además de la CEOE: la centralización de la negociación colectiva.

Entre las medidas que va a adoptar el gobierno de Rodríguez Zapatero tampoco se plantea ninguna mejora en los requisitos para recibir prestaciones por desempleo, aún cuando prácticamente la mitad de las personas paradas no tienen acceso a esta prestación y la caja de la seguridad social está a rebosar por el superávit obtenido con las cotizaciones de todos los trabajadores y trabajadoras.

# ELA PARTICIPA EN LA MOVILIZACIÓN EUROPEA DE LAS MUJERES, EN VIGO

Una delegación de ocho personas ha tomado parte en la Movilización Europea de las Mujeres que se ha celebrado en Vigo entre el 21 y el 23 de mayo, y que se engloba dentro de los actos de la Marcha Mundial de las Mujeres.




El viernes tuvo lugar la reunión de la coordinadora europea de la Marcha en la que están representadas delegadas de las distintas plataformas.

El 22 y el 23 tuvo lugar el Foro propiamente dicho con tres ejes de debate: La sustentabilidad ecológica: alternativas feministas; mujeres y espiritualidad, corporidad y resistencia; y, finalmente, contribuciones feministas en el origen y desenvolvimiento de una constitución Europea.

Asimismo ha tenido lugar una Feria Feminista, un lugar para el aprendizaje, diálogo e intercambio de experiencias. Se han llevado a cabo distintos talleres sobre temas como violencia de género, mujeres jóvenes, feminización de la pobreza, educación para la igualdad o mujeres inmigrantes, entre otros.

Esta movilización europea concluyó con una manifestación por las calles de Vigo bajo el lema "Diferentes sí, desiguales no".

Iritzia Opinión




# Explicaciones que no explican

Lo he leído en el artículo editorial de una publicación económica sobre la conflictividad en la negociación de los convenios colectivos: "muchos empresarios sienten que las empresas se han convertido en el campo de batalla de las disputas de poder entre PNV y ELA". No es la primera vez que se sugieren este tipo de explicaciones "políticas" a los conflictos laborales. De hecho, parece que la explicación del "pulso político de ELA" circula en algunos batzokis como razón de fondo de los conflictos que se mantienen en algunas contratas de servicios públicos, como las del Consorcio de Aguas, la residencia de Erandio o la limpieza de edificios públicos de Basauri.

Se entiende que analistas y comentaristas sean aficionados a interpretaciones "políticas", que sugieren que quien las da está en el intríngulis de las cosas y lucen más que explicaciones más llanas y prosaicas: por ejemplo, la de que la gente se pone en huelga porque quiere cobrar un salario que le llegue hasta fin de mes y tener el mismo trato de quienes hacen trabajo similar. Para los sesudos analistas explicaciones tan ordinarias no dan el nivel porque, como escribió Bertolt Brecht, "para los de arriba, hablar de comida es bajo, y se comprende, porque ya han comido".

La explicaciones "políticas" vienen además muy bien como pantalla tras la que los responsables últimos de los conflictos planteados por el personal de servicios públicos subcontratados ocultan su propia responsabilidad. En cualquier caso, el intento de despistar a la gente hablando de maniobras políticas tiene corto recorrido, ya que, como me decía una persona tras la manifestación de solidaridad con las trabajadoras de limpieza de Basauri, "si me tienen trabajando por cien mil pelas al mes no voy a estar mirando de qué partido es el alcalde para montar la bronca".

Harían bien por ello los gestores políticos implicados en dejar de inventar conflictos que no existen y abordar los contenidos concretos de los que tienen ante sus narices. Abandonando la prepotencia y la tranquilidad que da el saber que tiran con pólvora ajena, mientras siguen cobrando puntualmente sueldos espléndidos, amén de otras canonjías.

**GK**

astekaria

# Murrizketen aurkako akanpada

# GIZARTE-LAGUNTZAK EZ DIRA OPARI



*Etxebizitzarako laguntzak murriztu ditu Jaurlaritzak.*

**ELAk maiatzaren 26an hartuko du parte Bilboko Areatzan hainbat talde eta sindikatu gizarte-laguntzak murriztearen aurka egiten ari diren akanpadan. Azken aldion Jaurlaritzak Gizarte-Larrialdietarako laguntzak murrizteko erabakia hartu du: aurrekontuak hazten ziren heinean laguntzak izoztuta uztea gutxitzearen pareko neurria da. Mikel Noval ELAko gizarte-politikarako arduradunak azaldu digu akanpadaren zergatia.**

**–Zeren aurka egingo da akanpada?**

–Jaurlaritzak laguntzen inguruan eman duen azken dekretua bertan behera gera dadila eskatzen dugu. Dekretu horrekin larrialdietarako laguntzak talde handientzat gutxitu egingo dira, etxeen errenta ordaintzeko muga zorrotzagoak ezartzen baititu; orain arte 270 euro jasotzen bada, aurrerantzean askoz gutxiago izan liteke, etxebizitza bakoitzean nor bizi den kontutan izanda.

**–Halere, laguntza hauek ez ziren lehenago ere beste munduko ezer...**

–Ez, aurretik ere nahikoa lan bagenuen, administrazioek larrialditarako laguntza horiek ez baitituzte eskubidetzat aitortzen: aurrekontuetan zenbateko bat izendatzen dute, eta hori amaitzen denean ez dago besterik: garaiz iritsi denak zortea du, eta beste guztiek, kaltea.

**–Beraz, gizarte-politikan beste jokabide bat beharrezkoa da.**

–Bai, jende askoren bizimodua laguntzen mende dago, are gehiago gaur egun, lan merkatuko egoera hain ezegonkorra denean eta adineko asko oso pentsio eskasekin bizi denean, eta horiei gutxieneko duintasuna eskaini behar diegu, gizartean aski baliabide bai baitago.

**–26an ELAk zer egingo du Areatzan?**

–Gaiari buruzko eskuorriak banatuko ditugu kalean, eta goizeko hamaiketan bilkura bat egingo dugu administrazioen aldetik gizarteko arazoekiko bestelako jarrera bat har dezaten eskatzeko. Ondoren, eskubide sozialen kartaren bultzatzaileetako bat izan zen Pablo Angulok hitzaldi bat emango du.

*Las ayudas de emergencia social deben ser un derecho, no un regalo ni una limosna*

## Labur Breves...

### ● Continúa la huelga en Timken-IRB

La reunión impulsada por la administración vasca entre la representación sindical de la empresa Timken-IRB y la dirección de la multinacional no ha permitido ningún acercamiento en las posturas de ambas partes. La plantilla de esta fábrica que produce rodamientos emprendió la huelga por el nuevo sistema de métodos y tiempos que supone un mayor trabajo y retribuciones inferiores a las que venían percibiendo hasta ahora.

### ● Encierro y protestas en Tudela

Tras la negativa del equipo de gobierno del Ayuntamiento de Tudela a negociar la propuesta económica y duración del convenio realizado por la junta de personal, los trabajadores municipales han iniciado un encierro en el propio consistorio para protestar por esta situación. Las movilizaciones están siendo secundadas por los sindicatos ELA, ESK, CCOO y SPPME, que han denunciado la actitud del concejal de Personal del Ayuntamiento de Tudela, que se está bloqueando el preacuerdo alcanzado con el alcalde de la localidad con el que se puso fin a las movilizaciones que venían realizando los empleados municipales.

### ● Paros en ayuntamientos y diputaciones

Ante la negativa de las administraciones a negociar, ELA y LAB han convocado a partir de este martes, 1 de junio, paros de hora y media en los turnos de mañana y tarde de todos los ayuntamientos y diputaciones forales de la CAPV, así como en los organismos que de ellas dependan. Los paros se realizarán todos los martes, jueves y viernes de junio.

### ● Movilizaciones en Laminados Velasco

Los trabajadores de Laminados Velasco de Basauri se concentraron concentraciones ante las instalaciones de la empresa el pasado viernes, en defensa del convenio colectivo. Las concentraciones se repetirán los días 21, 24 y 25 de mayo entre las 13,25 y 13,45 horas por el mismo motivo. ELA ha denunciado la nula voluntad negociadora de la dirección de la empresa, que, durante año y medio no ha modificado su postura inicial en la mesa negociadora.

**www.ela-sindikatua.org**

### ● Solidaridad en Basauri e Iruña

**Varios centenares de personas se manifestaron el pasado miércoles en Basauri en solidaridad con las trabajadoras de limpieza de los edificios públicos, en huelga desde hace más de tres meses. La manifestación fue convocada por ELA, LAB, ESK y STEE-EILAS; los partidos políticos Izquierda Unida-Ezker Batua, Aralar y Zutik; y las asociaciones Ordago, Sagarrak, Trintxera, Asociación de Mujeres de Basauri, AEK-Bolintxuko Irakasleak y Basauri egiten. El martes, delegados y delegadas de ELA y LAB se concentraron ante la sede de FCC, de Iruñea.**




Franqueo concertado
n.° 08/207

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00